

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresan, kafetegi zatian produktuak ekoizten ditugu, sukalde bat dago atzeko aldean eta denda zatian bitartekariak gara. Suposatzen dugu gehien salduko ditugun produktuak, cupcake-ak izango direla, popularrenak direlako gure sare sozialetan. Gainera, zapore ezberdinekoak ditugu, eskatuenak karamelu gaziko cupcakeak dira.

Konpontzen dugun arazoa, produktu ekologikoen eskuragarritasun falta da, prezio konpetitiboz eta kalitate onekoak eskaintzen ditugulako.

Web orrialdea, online erosketak egiteko eta Instagram-a ditugu, guk kudeatzen ditugunak, horrela kostuak murriztuz.

